
EUSKERAREN IRAKASKUNTZA

Euskeraren iraupena berba egitean, erabiltean bada-
go ere, bearezkoa da zabaltzea iraupen ori ziurtatzeko.
Zabaltze orretan irakaskuntzak daukan zeregina oso
aundia da. Ikastolak, eta gaur egun eskolak ere, umeei
gure izkuntza irakasteko leku egokiak dira, edo biurtu
egin dira eskolen kasuan, beste edozein gai edo asigna-
turaren moduan irakasten dalarik.

Egia esan, euskeraren munduaren inguruan gabilza-
nok, izkuntza oneri garrantzi handia emon arren, esko-
la askotan soinketa, doinu edo antzeko gaien maila
emoten jako, "maria" deiturikoen bestekoa ain zuzen.
Eta ez eskoletan bakarrik, sarritan irakaskuntza "admi-
nistrazioa" dalakoaren aldetik ere, ez dau tratu oberik
jasoten, baina bearbada dagoen arduraduna egonaz ez
da arritzekoa izango.

Dana dala ez dira umeak euskera ikasten dabilzan
bakarrak; nagusiagoak ere orretan jardun dabe eta diar-
due, aspaldion zenbatekoa gitxitu egin dan arren.

Jakina, irakas metodoak edo erak, aurreko kasuan
eta azkenengo onetan guztiz desbardinak izan bearko
litzatekez, eta ez adinagaitik bakarrik, nagusi askok es-
kolea aintzina itzi ebela eta gramatika gauzak erdi (edo
osorik) aaztuta euki daikezala kontutan artu bear da
eta. Onekaz entzumena eta mintzamena landu bearko
litzatekez batez ere, au da, belarria egin. Dagoen urru-
tasuna jagonaz, doinuaren irakasketagaz konparatu
geinke: Belarriz edo solfeoz ikasi txistua jotzen? Biak
erabiliz lortuko diren arren emaitzarik onenak, bietari-
ko batek uts egin ezker, bestea indartu bearko dogu
elburua lortzeko. Itsuak nekez irakurri aal izango dau
paperetako doinu idatzia.

Aalegin guztiak eskertzekoak diran arren, batzuetan
kontrako lana biurtu daitekez. Euskera irakastea ez da
txantxetako gauza, edozelan egin daiteken lana. Beste
sasoi batzuetan, barra itzela zanean, zaleak gitxi eta
irakastearen arriskua handia, ainbat gauza, errakuntza
eta anka sartze parkatzeko modukoak ziran, eta bearri-
zanaren izenean parkatu egiten ziran. Baina gaur egun,
euki daukaguzan baliabide teknikoak eta guzti, orduko
beste astokeri irakasten da.

Izan ere, orduan baino "jakintzu" geiago dagoanez,
eta maisu bakoitzak ber "liburutxo" daukanez (eta ez
badauka sortu egiten dau), betiko euskaldun bateri be-
larriak zulatzeko moduko gauzak irakasten dira: "Min
egin nauzu" edo aginte era irakasteko onelako esaldia
euskeratu arazi "A ver si te estas quieto de una vez".

Gramatikan kokoteraino murgilduta dagoan ikasle
batek, zein mundutan sartu dan galdetuko leuskio bere
buruari, itzelezko "kortoizirkuitoa" sortuz bere barruan.
Baina belarria lantzen dauanak, bereganatu egingo
dauz alako gauzak. Bereganatu, erabaili eta zabaldu
gainera.

Arazoa larriagoa izan leiteke ikasle orreek biar egun
umeen irakasleak izango badira, alako gauzen zabal-
kuntza askoz aundiagoa izan leiteke eta. Eta ez nabil
gertatu leitekenaz berba egiten, gertatzen danataz bai-
no. Au, zuk zeuk irakurle, eta nik sasi-idazle, eta da-
nok euskaldun, ordaintzen dogun diruaz egiten da; ira-
kasleen eta ikasleen alagorak eta erabilten dabezan ba-
liabide teknikoak ordainduta, danon artean ordainduta,
eta, teoriar beintzat, Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean.

Zertarako balio deuskue bideo, T.V., ordenadore,
diapositiba, fotokopiadora eta zeruko satellite guztiak,
benetako orduan irakasleak uts egiten badau? Ezin do-
gu gaur egun aalegina bakarrik kontutan izan, bestela
betiko errakuntzetan jausiko gara. Beste gauza batzue-
tan salneurriaz gain "kalitatea" begirutzen bada, zergai-
tik ez euskeraren irakaste eta erabileran?

Erabilerari buruz zer esan asko egongo litzateke,
irratietan, T.V.-an eta beste komunikabideetako langi-
leek erabiltzen daben idazkera eta aoskera ikusiz eta
entzunez. Ziurtzat jotzen da aurkezle eta idazleok pres-
takuntza bat daukela, eta gainera komunikabide orree-
tan euskeraren teknikoak izango direla errakuntzak zu-
zentzeko eta erabilera obetzen jardungo direnak. Be-
raz, zelan 7ulertu belarriak gortu eta begiak itsututeko
moduko gauzak ain sarri urtetzea aipatutako komuni-
kabideetan?

Kontuz! Euskeraren "gaurkotzea" ez daigun itzi sa-
si-maisu eta irakasle "jakintsuen" eskuetan, sarritan
onek ikasle aurreratu asko euki daikiez eta.

Enrike Itxasalde

